ELGOIBAR


Evaristo Rodríguez posa con un cachorro en el parque canino habilitado por el Ayuntamiento de Elgoibar junto a uno de los accesos del polígono de Lerun. J.LEON

# «Queremos para dar respuesta a la problemática que afecta a todas las asociaciones protectoras de animales»

El elgoibartarra Evaristo Rodríguez es el presidente de la recién constituida Federación Vasca de Protección Animal Euskanbafed

JABI LEON

ELGOIBAR. Preocupados por el contenido de las ordenanzas municipales de protección animal que se estaban empezando a aprobar en diferentes municipios y ciudades de Euskadi como Plentzia o Bilbao, representantes de las cuatro asociaciones animalistas de Debabarrena (Katueder de Elgoibar, Katubeltz de Eibar, Xapi de Deba y Auzokatu de Mutriku) se reunieron la pasada primavera con el objetivo de analizar la situación y ver qué podían hacer para que los ayuntamientos vascos se dotaran de normativas realmente eficaces de cara a garantizar los derechos «tanto de las distintas especies animales como de las asociaciones que trabajan en su defensa».

Apenas medio año después de aquel primer encuentro, el pasado mes de enero vio la luz de manera oficial Euskanbafed, la nueva Federación Vasca de Protección Animal que ya trabaja «para promover la unidad entre las más de 140 asociaciones protectoras de animales que hay en Euskadi». Todo ello, con el objetivo de «hacer frente a los problemas comunes que afectan a todas esas asociaciones y colaborar con otras organizaciones, administraciones y personas que defiendan el bienestar y los derechos de los animales», explica el elgoibartarra Evaristo Rodríguez, que ha asumido la presidencia de Euskanbafed.

### Un propósito «urgente»

Según cuenta el propio Evaristo Rodríguez, la creación de la Federación Vasca de Protección Animal obedece a un propósito urgente: «enfrentarnos a las ordenanzas municipales que están aprobando diferentes ayuntamientos siguiendo el modelo planteado desde la asociación de municipios vascos Eudel».

A juicio de Euskanbafed, que apenas un mes después de su constitución ya agrupa a 17 asociaciones animalistas de Euskadi, las normativas municipales que se están aprobando siguiendo la propuesta de Eudel «contradicen directamente los principios fundamentales de la Ley Vasca de Bienestar Animal y suponen un grave retroceso en la protección de los derechos de los animales».

A su entender, dichas ordenanzas «no cumplen con los estándares de protección establecidos por la Ley, que exige garantizar la vida digna a todos los animales y promover medidas que prioricen su cuidado y protección».

Por esa razón, desde la recién creada federación muestran su «total rechazo» a dichas normativas. En Euskanbafed consideran que «parte de las ordenanzas está bien, pero hay muchos aspectos que corregir, por lo que ya estamos presentando alegaciones en los ayuntamientos que las van aprobando».

Además, Evaristo avanza que «si nuestras alegaciones no dan los frutos deseados plantearemos recursos por la vía de lo contencioso porque las Leyes de Protección Animal, tanto la vasca como la estatal, amparan nuestras reivindicaciones».

### Las colonias felinas

Desde Euskanbafed consideran que las ordenanzas municipales que se están aprobando en buena parte de los ayuntamientos vascos perjudican de manera especial a las colonias de gatos callejeros «porque ignora el modelo CER como herramienta eficaz y ética para la gestión de las colonias de gatos».

A juicio de la Federación Vasca de Protección Animal dicho método (consiste en la Captura, Esterilización y Adopción de gatos de colonias) «está avalado por los expertos en bienestar animal como medida efectiva y compasiva y no podrá implementarse adecuadamente debido a las restricciones que presenta la normativa».

Además, el presidente de la nueva entidad asegura que esa norma tampoco da soluciones adecuadas al problema de abandono y el sufrimiento animal. Según sus palabras, «en lugar de avanzar hacia un modelo más humano y responsable supone un paso atrás que pone en riesgo años de trabajo y avances conseguidos por tantas personas de forma privada».

Así las cosas, desde Euskanbafed hacen un llamamiento «urgente» a todos los ayuntamientos «para que reconsideren sus posturas y revoquen las ordenanzas tipo Eudel». En su lugar, la Federación Vasca de Protección Animal propone «que abran un diálogo con expertos, asociaciones animalistas y la ciudadanía para desarrollar normativas que sí estén en consonancia con la Ley Vasca de Bienestar Animal».

**Euskanbafed nace «con el fin de hacer frente a las ordenanzas municipales que se empiezan a aprobar con el modelo de Eudel»**

### Acabar con la sokamuturra

Desde Euskanbafed consideran que «en una sociedad moderna como la nuestra hay que acabar con las sokamuturras».

A su entender, «no tienen ningún sentido porque someten a los animales a un estrés evitable». Por ello, la federación ya ha enviado cartas a varios ayuntamientos «solicitando que busquen alternativas a las sokamuturras porque para nosotros es una forma de maltrato animal».

Preguntado sobre la respuesta que daría la ciudadanía ante una hipotética supresión de las sokamuturras, Evaristo señala que «hace 20 años nadie iba en contra de las corridas de toros y ahora se ha presentado en Madrid una Iniciativa Legislativa Popular con 700.000 firmas pidiendo su abolición». A su juicio, «cada vez queremos más a los animales y hay que ir cambiando cosas».



DEBA

# Sorreraren 10. urteurrena ospatzeko egitaraua antolatu du Itziarko Auzo Udalak

Ekitaldi nagusia martxoaren 2an izango da herriko plazan, baina aurretik beste hainbat proposamen ere prestatu dituzte

A. URBIETA

DEBA. Hamar urte igaro dira prozesu luze eta korapilatsu baten ostean Itziarko Auzo Udala martxan jarri zenetik (1995eko otsailaren 27an izan zen, bere izaera zehazten duen Foru Dekretuak onespena jaso ondoren) eta urteurren honi dagokion garrantzia eman herritarrak deitu eta elkarrekin ospatzeko egitaraua antolatu dute, otsailaren 26tik martxoaren 2ra bitartean.

Martxoaren 2ko ekitaldi nagusiaren atarian, bestelako proposamenak ere prestatu dituzte, jasotako ekarpenetatik. Honela, Aran Santamaria artista zumaiarrak Burugorri Ostatuko hormetan jarriko duen collage erakusketa irekiko da otsailaren 26an.

Biharamunean, Patxi Bisquert aktore eta zuzendariak sortu eta auzolanean ekoiztutako 'Ombuaren itzala' pelikula proiektatuko dute Lasturko elizan. Zuzendaria bertan izango da, eta solasaldia egingo dute bukaeran.

Ondoren, otsailaren 28rako Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin bertso afaria iragarri dute Bikain Jatetxean eta dagoeneko txartelak salgai daude, 25 euroren truke. Sokamuturra ere izango da larunbat arratsaldean 16:30ean kalebarrenean, Itziarko Larrabehi Elkartearen ekimenaz.

Urteurreneko ekitaldi nagusia martxoak 2 iganderako antolatu dute Herriko Plazan. 11:30ean da hitzordua eta herritarrak deituak izan dira oroitza ospakizun honen parte izatera. Bertan izango dira urte hauetan bidelagun izandako hainbat erakunde, eragile eta lankide ere, hala nola, inguruko ordezkariak eta beste auzo udaletako arduradunak. Ekitaldian agerraldi ofiziala egingo dute Alazne Txurruka Debako alkateak, Eider Mendoza Gipuzkoako ahaldun nagusiak eta Arantza Egaña Itziarko Auzo Udaleko alkateak. Aurretik zuzeneko musikak jantziko du goiza, eta dantza ikuskizuna eskainiko dute aurten hamar urte bete dituzten Itziarko umeek. Azkenik luntxa ipiniko da bertako produktuekin, eguraldiaz babesteko ekitaldi honetarako jarritako behin-behineko karpa estalian bertan.



Auzo Udalaren hamargarren urteurrena ospatzeko prestatutako egitarauaren aurkezpeneko une bat. DV


Lehen kudeaketa taldearen aurkezpen ofiziala. SALEGI

**«Ospakizunerako egun eder bat bilakatzea nahi dugu, herritar guztiak daude gonbidatuta», azaldu du Arantza Egañak**

Inguratutako herritarrei hagin landare bana emango zaie, gero norberak nahi duen lekuan landatu dezan.

Ekitaldiaren amaieran, 13:15etan, kanpai kontzertua izango da, Arientzako kanpai-jole eskolako kideen eskutik. Itziarko kanpandorreko kanpaiak erabiliz hainbat pieza joko dituzte, garai bateko kanpai-jole ofizioan oinarrituta eta herri ezberdinetako tradiziotik jasoak, gaur eguneko ikuspegi berritzaileti k arituz.

Ekitaldiaren izaera instituzionalaren gainetik, «ospakizunerako egun eder bat bilakatzea nahi dugu, herritar guztiak daude gonbidatuta, batez ere, herritarren gogo, borondate, aldarrikapen eta esfortzu nekaezina izan baitira Itziar auzo udal bilakatzea posible egin dutenak», adierazi du Arantza Egaña taldeburuak.

### Ikerketa sozioekonomikoa

Jakitera eman dutenez, ez da dena ospakizuna izango ordea. Hamarkada bateko perspektiba baliatuz, lehendik iragarria zuten ikerketa sozioekonomikoa burutuko dute udaberritik aurrera. Hauxe izango dute hain zuzen ere urtean zeharreko egitasmo nagusia.

«Dagoeneko hamar urte bete ditu Itziarko Auzo Udalak, denbora honetan eragile administratibo gisa sendotuz joan gara eta bistakoak dira egindako lanaren emaitzak. Hala ere asko dago hobetzeko oraindik, eta ezinbestekoa da erakunde nagusieko lankidetza batetik eta herritarrekiko harremana, bestetik». Dagoeneko hirugarren legealdia dute, hala ere gogoan dituzte oraindik «hasierako arazo eta oztopoak. Bidea ez da erraza izan, baina uste osoz egin dugu aurrera». Batez ere joan den legealdian Debako Udalaren eta Itziarko Auzo Udalaren artean aho batez adostutako hitzarmena goraipatu dute. «Horrek jardueraren normalizazioa ekarri digu eta, gaizki ulertuak uxatuz, esku artean genituen hainbat proiektu garatzeko bidea erraztu digu».

DEBABARRENA

# Zehaztu dira Debabarrenean nekazaritza ibilgailuen azterketa teknikoak egiteko datak

DV

DEBABARRENA. Nekazaritza ibilgailuei azterketa teknikoak egiten dizkieten unitate ibiltariak Debabarreneko herrietan ibiliko dira datozen asteetan eta dagoeneko zehaztu dute egutegia. Lehenengo hitzorduak apirilaren 2an izango dira. Goizeko 9:00etan Matxaria parking-ean izango da unitate ibiltaria, Eibarren. 12:00etan, berriz, Mendaron, Lili parean; eta egun berean 13:30ean Soraluzen, Ezozian.

Apirilaren 4ean Elgoibarren izango da azterketa pasatzeko aukera, Mintxetako aparkalekuan, goizeko 9:00etatik aurrera. Azken bi hitzorduak maiatzean izango dira. 8an Itziarko industrialdean eta 9an Mutriku, Mijoa industrialdean. Bi kasuetan, goizeko 9:00etarako joango da unitate ibiltaria.

Azterketara eraman beharreko dokumentazioa hauxe da: zirkulazio-baimena, azterketa teknikoaren txartela eta aseguruaren ordainagiria.


Apirila eta maiatzean izango da azterketak egiteko aukera.